

# Urkiola

## Parke Naturala   Parque Natural

**PR-BI 84**

## Erleabe, erleen bidea
## *Erleabe, el camino de las abejas*

www.bizkaia.eus
www.bizkaia21.eus




**TOKI ALAI**
Interpretazio Zentroa
*Centro de Interpretación*
☎ 94 681 41 55

informazioa eta trackak deskargatu:
*descarga de información y tracks:*

(EU) (ES)

Bizkaia
*foru aldundia*
*diputación foral*

URKIOLA
PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL

DIMA

mañaria

112 SOS DEIAK

## URKIOLAKO IPUINAK — *LOS CUENTOS DE URKIOLA*

Urkiola eta haren ingurua hamaika istorio eta kondaira zaharren eszenatokia da. Haietako askok gaur egunera arte iraun dute, ahozko tradizioari eta duela mende bat baino gehiago gure kultura maite duten batzuek hasitako ondorengo bilketa eta hedatze lanari esker.

Mañaria haietako batzuen sorterria izan zen. Besteak beste, Ebaristo Bustintza "Kirikiño" bertan jaio zen. Paraje hauek Errose Bustintza "Mañariko" idazlearen inspirazio iturri ere izan ziren; hark idatzitako Euskalerriko ipuinak liburuan Urkiolako lekurik mitikoenetara egin zituen txango ugarietan idatzitako 50 ipuin inguru dauzkagu. Mari, Anbotoko dama, Sugar, lamiak, jentilak, galtzagorriak eta artzainak dira haren istorioetako pertsonaia batzuk. Guzti hauei esker iraganera bidaiatu eta Urkiola mitologikoa ezagutu dezakegu.



Errose Bustintza

*Urkiola y su entorno son el escenario de un sinfín de viejas historias y leyendas. Muchas de ellas han llegado hasta nuestros días gracias a la tradición oral y al posterior trabajo de recopilación y divulgación que algunos amantes de nuestra cultura comenzaron hace más de un siglo.*

*Mañaria fue cuna de algunos de ellos, como Ebaristo Bustintza "Kirikiño". Su entorno fue también fuente de inspiración de la escritora Errose Bustintza "Mañariko", en cuya obra Euskalerriko ipuiñak encontramos cerca de 50 cuentos que ella escribió en sus numerosas excursiones a los lugares más míticos de Urkiola. Mari, la dama de Anboto, Sugar, lamias, gentiles, galtzagorris y pastores son algunos de los personajes de sus historias. Todos ellos nos permiten viajar al pasado y nos dan a conocer el Urkiola mitológico.*

## FITXA TEKNIKOA — *FICHA TÉCNICA*

| | | |
|---|---|---|
| HASIERA | Mañaria | *INICIO* |
| AMAIERA | Mañaria | *FIN* |
| LUZERA | 8,2 km | *LONGITUD* |
| GEHI. MALDA | 461 m | *DESNIVEL ACUMULADO* |
| DENBORA (g.g.b) | 2h 30' | *TIEMPO ESTIMADO* |
| IBILBIDE MOTA | Zirkularra / *Circular* | *TIPO DE RECORRIDO* |




24% Errepidea edo asfaltozko bidea / Carretera o camino asfaltado
64% Lur- edo hartxintxar-pista / Pista de tierra o grava
12% Galtzada edo bidezidorra / Calzada o senda

Ibilbideak Erleabe amildegia inguratzen du; bertatik izen bereko erreka doa, Leungana eta Eskuagatx mendiguneen artean. Leku magikoa da eta inguruan bizi ziren lamiei buruz mintzatzen diren kondaira asko daude.

*Recorrido que bordea el barranco de Erleabe, por donde discurre el arroyo del mismo nombre, que se sitúa entre los macizos del Leungana y Eskuagatx. Se trata de un lugar mágico donde son muchas las leyendas que nos hablan de las lamias que habitaban el entorno.*

MIDE

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Inguruak badu bere arriskua | *El medio no está exento de riesgo* |
| 2 | Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak | *Sendas o señalización que indica la continuidad* |
| 2 | Zalbideko ibilaldia | *Marcha por caminos de herradura* |
| 2 | Ordu 1etik 3ra bitarteko ibilaldia gelditu gabe | *De 1 a 3 horas de marcha efectiva* |

# PR-BI 84

## Erleabe, erleen bidea

Ibilbide honetan Erleabe amildegia inguratuko dugu; dirudienez, bertan berezko erlauntzak oso ugariak ziren.

**0. km** **Mañariko plazan** hasiko gara, herriko hilerrira doazen eskaileretatik igoz. Honen ondotik igaro eta eskuineko auzo-bidetik jarraituko dugu. Laster bidegurutze batera iritsi eta eskuineko mendi-bidetik jarraituko dugu berriro ere; azken baserriak atzean utzi ondoren, bidea hartxintxarrezko pista bihurtzen da. Leungana mendiaren hegaleko malda leunetik igotzen jarraituko dugu, ibili ahala agertzen joango diren bideei jaramonik egin gabe. Apurka-apurka kareharrizko hormetan gora igotzen diren arteak ikusten hasiko gara, intsinis pinuaren landaketengatik ordezkatzen hasi baino lehen. Pista nagusitik mendebalderantz igotzen jarraituko dugu saihesbideak alde batera utzi eta **Aita Kurutzekoa** baselizara iritsi arte; pistatik bertatik eskumatara ikus daiteke.

**2,6. km** Mendi-bidera itzuli eta bidegurutze batetara iritsi arte jarraituko dugu. Han hegoalderantz doan sahiesbidea hartu eta bide nagusia utziko dugu, eta **Euenganako** aterpera doan bide nagusia alboratuko dugu. Iturri polit baten ondotik pasatzen den bidezidor belartsu batetik jarraituko dugu. Honek Mañaria eta Dima arteko mugara eramango gaitu, mugarri handi batekin seinaleztatua. Olarreta gainera iritsi arte gora jarraituko dugu; bertan PR-BI 83rekin egingo dugu bat.

**3,9. km** Gure ibilbideak ekialderantz jarraitzen du, PR-BI 83 berriz ere alboratu eta Eskuagatxeko hegaletik jaisten den hartxintxarrezko mendi-bidea hartzeko. Mendi-bide hori utzi barik beherantz joango gara, haitzetik askatutako kareharrizko bloke handien ondotik igaroz.

**7,2 km** Kanadar pasabidea gainditu ostean Arrugaeta auzoko lehen baserrietara iritsiko gara; non edanlekua duen iturri bat dagoen. Hasierako bidegurutzera iritsi arte baserrien artean beherantz jarraituko dugu.

**8,2. km** **Mañaria**

www.orbela.com





Errialtabaso


Mugarri


Aita Kurutzekoa

# PR-BI 84

## Erleabe, el camino de las abejas

En este recorrido rodearemos el barranco de Erleabe, donde al parecer, eran muy abundantes las colmenas naturales.

**km 0** Comenzamos en la **plaza de Mañaria**, subiendo las escaleras que llevan al pequeño cementerio de la localidad donde tomamos el camino vecinal de la derecha. Pronto llegamos a un cruce donde continuamos por la pista de la derecha que tras pasar los últimos caseríos se convierte en una pista de grava. Continuamos en suave ascenso por la ladera del macizo del Leungana, ignorando las sendas que aparecen a nuestro paso. Ante nosotros comienzan a exhibirse las encinas que trepan por las paredes de roca caliza y que poco a poco van dando paso a plantaciones de pino radiata. Continuamos ascendiendo por la pista principal en dirección oeste, obviando cualquier desvío, hasta llegar a la ermita **Aita Kurutzekoa** Jesús Crucificado, que se puede observar desde la misma pista, a la derecha.

**km 2,6** Regresamos a la pista para seguir avanzando por ella hasta llegar a un cruce, donde cogemos el desvío en dirección sur y obviamos el camino principal, que asciende al **refugio de Eguengana.** Continuamos por un sendero herboso que pasa junto a una bonita fuente y que nos conducirá al límite entre los municipios de Mañaria y Dima, señalizado con un gran mojón. Continuamos ascendiendo hasta llegar al **alto de Olarreta**, donde nos unimos al PR-BI 83.

**km 3,9** Nuestro recorrido continúa dirección E para tomar una pista de grava que desciende por la ladera del Eskuagatx, abandonando de nuevo el PR-BI 83. Sin abandonar esta pista vamos perdiendo altura pasando junto a los grandes bloques calizos desprendidos de la peña.

**km 7,2** Tras rebasar un paso canadiense llegamos a los primeros caseríos del barrio de Arrugaeta, donde hay una fuente con abrevadero. Continuamos descendiendo entre los caseríos hasta llegar a la bifurcación del inicio.

**km 8,2** **Mañaria**